

ELI GALDOS OÑATIKO ALKATEA 1980AN

«Korrikaren bezperan
40ko sukarra nuen»

Oñatiko alkateak ilusioz beterik jaso zuen albistea: Korrikaren lehen edizioa Oñatin hasiko zen.

■ **Noiz izan zenuen lehen aldiz Korrika izeneko zerbait egin behar zelako berria?**

Hasi baino urtebete lehenago edo izango zen. Alkate bezala euskararen munduan sartuta nengoen, baita ikastolako gauzak zirela eta. Euskararen inguruan Bizkaian zebiltzan batzuekin harremana nuen, eta horrela enteratu nintzen talde batek euskararen alde horrelako zerbait egitea pentsatua zuela; helduen alfabetatzea laguntzeko eta. Ziur ez dakit zeinek esan zidan, baina horrela izan zen.

■ **Oñatin hasiko zela esan zizutenean, zein erreakzio izan zenuen?**

Poz handia hartu genuen, eta berehalaxe gertatu ginen horrelako ospakizun handi bat

egiteko. Ikastolako umeak segituan hasi ziren lanean, horrelako ospakizun baten hasieratzat gure herria aukeratu izanak poza eman baitzigun. Gainera, euskara garai hartan izugarritzko arrakasta izaten hasi zen, eta bagenekien Korrika zerbait garrantzitsua izango zela.

■ **Izan ere, hura baino lehentxeago bai euskarari ekitaldiak izugarritzko arrakasta izan zuen.**

Hala da, eta nik uste dut hor hasi zela Korrika. Proiektu hori aurrera eramaten hasteko bai euskarari ekitaldiak izugarritzko garrantzia izan zuen, nire ustez.

■ **Lekukoa eraman behar zenuela esan zizutenean, nola hartu zenuen?**

Nik lekukoa alkate nintzelako eraman nuen, Oñatiko herri guztiaren izenean, baina pertsona bezala ere tokatu zitzaiz-



EGUNKARIA

dan, eta are gusturago nengoen, horrelako gauza bat egokitu zitzaidalako. Emozio handia eman zidan Oñatin lekukoa ematea.

■ **Gustura ez ezik, oso gustura ere eramango zenuen, egun hartan gripea baitzen nuen.**

Korrika hasi baino hiru egun lehenago katarro bat harrapatu nuen, eta egun bat lehenago izugarritzko gripea nuen. Sukarra ere izan nuen, ia 40°koa. Egunean bertan sekulako hotza egiten zuen, elurra ere egin

zuen, eta Korrika gaueko hamarretan hasi zen. Aurreko gau guztia izerdi patsetan pasatu nuen, eta egun guztian ohean egon nintzen. Garaia iritsita, ordea, hobeto nengoen, orduan ere gazteak ginen eta, eta horrelako gauza batek merezi zuenez, ba joan egin nintzen.

■ **Egoera horretan, zenbat bide egin zenuen lekukoa-rekin?**

Lehenengo Jose Mari Satrustegik hartu zuen lekukoa. Hark Txantxiku ikastolako haurrei

ARRAKASTA

“ «Euskarak arrakasta zuen, eta bagenekien Korrika ondo irtengo zela»

eman zien, eta hauek niri. Ezingo nuke ziur esan, baina kilometro eta erdi bi kilometro inguru egingo nituen. Ni ez ezik, zinegotzi guztiak ere atzetik etorri ziren. Garai hartan, HBkoak, Euskadiko Ezkerrekoak eta geu geunden Udalean, dena hamazazpi zinegotzi.

■ **Oñatiko herritarrek nola erreakzionatu zuten Korrika herrian hasiko zela esan zitetenean?**

Lehenik eta behin, udaletxe-kookin jarri ziren harremanetan, eta zer egin nahi zuten esan zigitenean, guk ikastolakoekin hitz egin genuen. Ikastolaren eta gure artean antolatzen hasi ginen. Ikastolak izugarritzko jende piloa zeukan inguruan, eta horrela joan zen zabaltzen berria, eta gustura hartu zuten.

JOSE MARIA SATRUSTEGI EUSKALTZAINA

«Oñatira iritsi ginenean ez genekien zer egin behar genuen»

Euskaltzain nafarrak eraman zuen Korrikaren lehen lekukoa. Harrez gero hainbat Korrikatan parte hartu duela dio.

■ **Noiz izan zenuen lehen aldiz Korrikaren berri?**

Ni garai hartan Euskaltzaindian idazkari nintzen, gonbidatu egin ninduten parte hartzera. Korrikari hasiera eman baino hilabete pare bat lehenago izan zen hura.

■ **Orduan esan al zizuten lehen lekukoa zuk eraman behar zenuela?**

Lekukoarena oraindik airean zegoen orduan. Remigio Mendiburuk ez zuen lekukoa azken eguneraino egin, eta Oñatira iritsi ginenean ez genekien oraindik zer egin behar zen. Azkenean, eguerdian udaltxean geundela iritsi zen lekukoa. Ondoren, beste arazo bat

sortu zitzaigun: lekuko horretan zein mezu jarri. Korrika hastera zihoan egun berean geunden eta ez geneukan mezurik. Azken orduan, Arregik gerora AEK izango zen erakundea sortu zueneko eskutitza sartzea erabaki genuen.

■ **Korrikari hasiera emate hori nola hartu zenuen?**

Oso pozik hartu nuen. Gauza berria zen, eta ez genekien ziur zer aterako zen handik. Gogotik ere hartu behar izan genuen, etxetik ateratzeko ere komeriak izan baikenituen. Egun hartan elurra egin zuen, eta izugarritzko hotza egiten zuen. Bidean ere elurra egin zuen, nolanahi ere, nik pozik hartu nuen.

■ **Lehen lekukoa eraman eta gero parte hartu al duzu Korrikan?**



JOXE LACALLE

Bai, noski. Lehen urte hartan bertan Sakanatik pasatu zenean ere parte hartu nuen berriro. Bestalde, ondorengo urteetan, Urdiainen nengoenean, lekukoa berriro ere eramatea tokatu zitzaidan, eta korrikalari soil bezala ere parte hartu izan dut. Errepidetik kanpora, hitzaldiren batzuk ere emana naiz Korrikaren aldeko ekitaldietan.

■ **Aurreko urteetan euskararen aldeko hainbat ekitaldi egiten hasiak ziren, hala**

nola, Azpeitiko Kilometroak 79an edo Bai Euskarari jaialdi erraldoia. Horrek eraginik izan al zuen Korrikan?

Bai, hala da, Bai Euskarari ekitaldiarekin oztopo handienak desegin ziren, gainera. Euskaltzaindia beti aritu izan zen lanean euskararen alde, bai Gerra Zibilean eta bai ondorengo urteetan. Begiraleak ginen, eta oso zorrotz aztertzen ziren euskararen alde guztiak. Hain zuzen, Bai Euskarari jaia loka-

AITZINDARIAK

“ «‘Bai Euskarari’-k euskara gizarteratu eta antzeko ekimenei bidea egin zien»

ri horiek eteteko zerbait dardatsua izan zen. Horrek asko lagundu zuen, gizaratea girotu eta handik eta hemendik euskararen aldeko mugimenduak sortzea ekarri baitzuen.

■ **Korrika AEKren diru beharra asetzeko sortu zen bere garaian. Gaur egun izaera herrikoia duela esan al liteke?**

Hori horrela da; izan ere, gauzak ondo joan daitezkeen dirua beharrezko da. Baina horrek amaitu egin beharko du egunen batean. Normalkuntzara iritea da helburu nagusia; horrek esan nahi luke agintarien aldetik eta irakaskuntza maila ofizialean euskararen behar guztiak beteta egon behar luketela, eta Euskara Gobernuak ofizialki babestua egongo litzatekeela.



dimarpe, S.a.

e-mail: dimarpe@euskalnet.net

◀ **mangerak eta ureztatze tresnak**
◀ **tutueriak eta akzesorioak**

Oria etor.,6

Tel.: 943 37 26 86

Faxa: 943 37 33 03

20160 LASARTE-ORIA